

Primitiboa telebistari begira

Telesaila duzu gure garai honen narrazio-rik berezkoena. Idazle handi horietako asko errespetuz aipatzen hasi dira eta aitortu ere egiten dute telesail egileek eragiten dieten inbidia. Narrazio handien prestigio galera da, hain zuzen ere, bizitza egokitu zai-gun postmodernitatearen ezaugarria. Iker-tzaileek salbu, gaur egun inortxok ere ez du irakurtzen oraintsu arte gailurtzat jotako nobelarik. Haietara halako asmo arkeologiko-arekin hurreratu ezean, irentsezinak dira. Noizbait publiko xumearentzat idatzitakoa, nobela generoari publiko horixe baitagokio, gaur egun jakintsu eta adituentzako bazka baino ez da. Kontakizun molde bizi bakarria telesaila duzu, neurri batean ahozko generora hurbiltzen gaituelako eta, etorri ere, pertsonak hortik gatozelako”.

Ez dira nire hitzak, Juan José Millásen protagonista batenak bai-zik (*Laura y Julio*, Seix Barral), eta hain zuzen ere orriotan agertu zen Harkaitz Canoren *Gidoilarien lando-rio* artikuluak ekarri zizkidan gogora: “Asko hitz egiten da zinemaren eta literaturaren arteko loturez, baina noizbait hasi beharko dugu telebistaren eta literaturaren arteko harremanez hizketan. Ez al dira, akaso, AEBetatik iristen zaizkigun hainbat telesailtako pertsonaiak, egoerak eta elkarrizketak,



ZALDI ERO

hango zine ustez independentea baino askoz ere berritzaileagoak eta gaur egungo errealitatean txertatuagoak?”.

Bai Millásen bai Canoren hitzek zer pentsa ematen didate; sortzaileoi gonbita egiten digute gure gizartea ongien ezaugarritzen eta islatzen duen telebistari –ordenagailuarekin batera beharbada– errezero bezainbeste arreta handiz begiratzera, erne egotera. Ezin dugu ahantzi hain etxezuloturik bizi garen garai honetan, jendearen bizimoldea telebistaren bitartez osatzen dela, eta jendeak telebistaren bitartez –eta kasik horren bitartez baino ez– osatzen duela bere kontzientzia.

IDAZLEA ETA MUNDUA. Publikoari nahitara zuzendutako lana da telesailarena, gehienetan morrontza handiegikoa, baina iruditzen zait idazleok sarriegi ezikusia egiten diogula publikoari, eta despistatu samar gabiltzala –bertan goxo eginik ez gaudenean, bederen–. Iruditzen zait mundua azkar, oso azkar aldatzen ari dela eta sarritan egiten ditugun obrak publikoaren interesetatik oso urrun geratzen direla; nahi gabe ere, sortu bezain pronto iraungitze data bete duten obrak sortzen ditugula, share kuota eskasagatik erretiratzen dituzten programen antzera. Michel Gaztambide zinema

idazleak dioenez “Zinema masturbazioa ez, baina koitoa da”. Hau da, zinema gutxienez biren kontua da eta gidoilariak idatzi egiten du gero guk lan hori deskodifika dezagun. Iritzi horren haritik, nago literaturan masturbazioa dela nagusi eta ez dugula geure buruari eta munduari begiratzeko dion moldean asmatzen. Bere artikuluan, Harkaitz Canok ondorioztatzen zuen nobelagile parodiakoak asko duela ikasteko gidoilari topikoengandik, ia dena... Eta nik esango nuke gutxienez elkar kutsatetik onura baino ez dela etorriko.

Eta mundua hain azkar aldatzen ari denez, Anjel Lertxundik zioen bezala, laster liburudendara joan eta kartan hautatu ahal izango dugu gure gustuko liburua: saltzaileak Internetetik –agian argitaletxearen web orritik– jaitziko du orduan, eta hamar minutuan hor-



Iruditzen zait

idazleok sarriegi ezikusia egiten diogula publikoari, eta despistatu samar gabiltzala



irudiak:

Antton Olariaga



txe izango dugu liburu inprimatu eta enkoaderatu berria, ogi egin berria bezalaxe etxera eramateko prest. Izan, argitaletxetarako oharra zen hura, baina nago sortzaileontzat ere balio duela. Egiaz, irudipena dut eguneroko aldatzen den mundu berriari forma berriak egokitu behar dizkiogula eta Durangoko Azokako erakusleihoak ikusi baino ez dago ohartzeko forma zaharrak nagusi direla oraindik ere: betiko generoak, betiko formatoak, betiko itxurak, egile zein argitaletxeen partetik apustu estetiko berritzailerik apenas... –Oso oker ez banago, euskal kultura eta ikus-entzuzkoak izan zen iazko Azokaren leloa; oso gogoan dut, zentzu horretan, lagun idazle baten kexua: esku artean proiektu bat izan, argitaletxeak hura argitaratzeko prest egon, baina, nobela idazleek telesail idazleei nola, “Ut, ut, ut!” egin zioten DVD xume batekin batera argitaratzeko posibilitateari, hain zuzen ere euskal kultura eta ikus-entzuzkoen azoka inguruan...–

Bakarren baten harridurarako, zinez uste dut apustuak, gutxi baina benetakoak, haur literaturan kokatu ohi diren irudi liburuetan edo albumetan antzematen direla, baina euskarazko gutxi horiek gehienetan itzulpenak izan ohi dira –Durango aipatu dut, eta idazleok liburua eskuetan dugula ateratzen dituzten argazkiei triste irizten diet, monotono; salmenta eskasa hain piura errukarriarekin, salmenta hutsala hainbeste liburu batera, kasik uholdeka plazaratzean; baina utzidazue Galeusca ere aipatzen: ze zahar kutsua hartzen diodan gure betiko Galeuscari, ze eraginkortasun gutxi, telesailen espiritu edo kezka horretatik ze urrun... , eta ze sintomati-koa zaidan–.

IDAZLEA ETA PUBLIKOA. Irudipena dut publikoari ez diogula behar bezala erreparatzen, ez dugula behar bezainbeste aintzat hartzen, eta nago sortzeko orduan horri ere kontu gehiago egin behar geniokeela. Oso gogoan ditut, zentzu horretan, Kike Amonarrizek *Nabarra* aldizkarian esandakoak: “Euskarazko kultur produktu erakargarriak lortu behar ditugu. Oso



Susmoa dut mundu zurrunbilotsu honetan sortzaileok atzean geratzen ari garela, eta hain azkar bizi izanik, nekez jabetu gaitzkeela gure begien bistan sortzen ari den mundu eta aro berriaz



ondo aztertu behar dugu gure hizkuntza komunitatearen gustuak, nahiak eta hutsuneak non dauden. Horiei erantzuten jakin behar dugu. Momentu honetan abangoardiako produktuak behar baditugu ere, iparra markatuko duten liburuak, filmak, behar baditugu ere, gehienbat behar duguna jendeak kontsumituko dituen produktuak dira. Uste dut momentu honetan, gehienbat ikusle berriak, erosle berriak, irakurle berriak, entzule berriak lortu behar ditugula. Merkatuan gaude eta gure merkatuari erantzun behar diogu”. Oso iritzi errealista da Amonarrizena, pragmatikoa, pragmatikoezia agian hain zaharkituta dagoen sortzaile jendearentzat, baina haren hitzek inondik ere koitoarekin zerikusi handiagoa du masturbazioarekin baino eta inondik ere zer pentsa ematen dute, norabide bat proposatzen.

Ez dakit oso ongi zatikiaren estetika nagusituko den, edo egitura eta testu hautsiak, egunerokotasunean txertatuago bide dagoen erreportajea, hibridoak, komikiarekin lardaskan dabilzan narrazioak, genero eta arteen arteko puzzle halako bat... , baina garai zurrunbilotsu hauei egokitu nahi badugu, bide urratugabeak ibili behar ditugulakoan nago, proposamen gaurkotuagoak egin. Asmatuko dugu ala ez, salduko dugu ala ez, baina Joseba Sarrionandiaren hitzak argigarriak zaizkit zentzu honetan ere: “Literatura ez da tiro olinpikoa; ez duzu itu bakar bat eta hartara zenbat hurbildu zaren neurtzeko zirkulurik. Literaturak antz handiagoa du ilargiari harrika egitearekin; ahaleginak ituak baino garrantzi handiagoa du, eta aurrekoak jo duelako ez da itua aldatu beharrik; hainbat poetika eta balorazio irizpide dago”.

HITZ BATEZ. Susmoa dut mundu zurrunbilotsu honetan sortzaileok atzean geratzen ari garela, eta hain azkar bizi izanik, nekez jabetu gaitzkeela gure begien bistan sortzen ari den mundu eta aro berriaz. Félix de Azúaren intuizioa ezin argigarriagoa, ezin pizgarriagoa zait: “Nago sortze berri bat –berak *fundación* dio– bizi dugula eta geure aro propioaren primitiboak garela”. Asko dut pentsatzeko, beharbada Calvinoren *Sei proposamen milurte berrirako* berrirakurri beharko dut, baina orain banao, A-Muletik *Houseren* azken telesailak jaitsiak ditut eta ez dut hura iragarkirik gabe ikusteko aukera alferrik galdu nahi. ■